



# astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

17.zk 2023 • 5€

**58.  
DURANGOKO  
AZOKA**  
2023ko  
abenduaren  
6tik 10ra

[www.durangokoazoka.eus](http://www.durangokoazoka.eus)

  
[www.parratberna.com](http://www.parratberna.com)  
**Herriko plaza 2**  
**Elorrio**





# AURKIBIDEA | astola

Durangaldeko urtekaria. 2023

Astola iritzi orori zabalik dagoen aldizkaria da, horrek ez du esan nahi artikuluen sinatzaleekin bat datorrenik.

**Erredakzioa, publizitatea eta administraritza:**

Gerediaga Elkartea  
Larrasoloeta, 3 48200 Durango

Tel. 94 681 80 66

E-mail: gerediaga@gerediaga.eus  
[www.gerediaga.eus](http://www.gerediaga.eus)

**Koordinatzailea:** Txelu Angoitia

**Erredakzio kontseilua:**

Jon Irazabal, Izaskun Ellakuriaga, Beñat Gaztelurrutia, Markel Onandia, Aingeru Mimentza, Juan Rekalde, Gotzon Gómez

**Argazkia:** Txelu Angoitia

**Publizitatea eta administraritza:**

Beñat Gaztelurrutia

**Diseinua eta maketazioa:**

Biko komunikazioa (Durango)

**Inprimategia:** Gertu koop.

**Lege gordailua:** SS-1525-07

**ISSN:** 1888-234X

© Argitalpen honena, Gerediaga Elkartea 2023

© Testuak eta argazkiak, egileenak

[www.gerediaga.eus](http://www.gerediaga.eus)



## 4 | LABURREAN

Durangaldeko urteko kultur kronika laburra: Garavilla fabrika Otxandion, Gerediagako dokumentategia, saguzarrak Durangaldean edo Zaldibarreko psikiatrikoaren urreurrena.



## 24 | DURANGALDEAN BADIRA DURANGALDEKO EMAKUME GAZTE ARTISTAK.

Zinema, antzerkia, dantza, arropa diseinua, argazkilari, marrazkia...

Durangaldeko emakume gazte sortzaileak dira. Batzuk ezagunago, beste batzuk ezkutuago, baina egon, badaude.

**Ainhoa Zubarte Narbaiza**

## AURKIBIDEA I Astola



### 56 | IZARO ANDRES ZELAIETA. ELKARRIZKETA

"Cero de enero" disco berria argitaratzear dagoela, Izaro abeslari eta konpositore mallabiterrak agertokietara itzultzear, ibilbideaz eta bere beldur eta itxaropenez hitz egin digu.

Aritz Maldonado

### 40 | PINTURAS MUSICALES. LAS PINTURAS DE LA FACHADA DEL AYUNTAMIENTO DE DURANGO

Desde la fachada del Ayuntamiento de Durango, doce músicos nos observan al pasar. ¿Desde cuándo están allí? ¿Cuál es su origen y su agitada historia? Aquí están las respuestas.

Ana Celia Ormaetxea



### 74 | LA CUEVA DE ATXURI I. UNA DESAPARICIÓN ANUNCIADA.

Descubierta por Barandiaran en 1929 y desaparecida por el avance de las canteras, La cueva de Atxuri-I, en Mañaria, alojaba restos arqueológicos de un valor extraordinario.

Aitor Montero Igartua



### 90 | AUZO IKASTOLAK DURANGALDEAN


1918 eta 1920 urte bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiak, udalen laguntzarekin, auzo-eskolak eraikitzeko asmo handiko plana jarri zuen abian.

Iñaki Goiogana Mendiguren



## 106 | BARRUKO IBILBIDEAK

Kulturarekin loturiko bost gonbidatuk bidezidorretik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik.



## 134 | EUSKARA ETA LITERATURA DURANGALDEAN

Duela bi urte, Durangaldeko hizkuntza eta literatura ondarea berreskuratzeko asmoarekin lanean hasi zen euskalzale talde bat. Bidean aurkitutakoak euren aurreikuspenak gainditu ditu.

**Xabier Boveda, Maite Arrizabalaga, Joseba Sarrionandia eta enparauak**



## 146 | EL PLAN MARTÍ. FUSIONES DE MUNICIPIOS EN 1960.

El llamado PLAN MARTÍ, de 1960, e impulsado por el franquismo, estuvo a punto de cambiar la configuración administrativa de Durangaldea, reduciendo de 14 a 6 los municipios de la comarca.

**Ángel Zurita Laguna**

LABURREAN

XIXILI BENGOETXEA LLONA  
HISTORIALARIA

# GARAVILLA FABRIKA OTXANDION

## ARRAIN KONTSERBA INDUSTRIA ETA EMAKUME LANGILEEN LAN PROZEDURA ETA BALDINTZAK

**O**txandion 1950eko hamarkada erdialdean martxan egon zen arrain kontserba fabrika izan zen Garavilla S.A. Bermeon jatorria zuen enpresa honek, garrantzi nabarmena izan zuen XX. mendeko Euskal Herriko arrain kontserba industriaren alorrean. Berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan, Conservas Garavilla enpresak, hedapen-prozesu azkarra hasi zuen: fabrika berriak ireki zituen, Espainiako hirigune nagusietan salmenta-sare zabala sortu zuen, eta nazioarteko merkatuetan ere gero eta presentzia handiagoa lortu zuen. 1953tik aurrera, Garavillak Estatu Batuetara, Brasilera, Italiara eta Suitzara esportatzen zuen. Garavilla familiak erregimen frankistaren industria-sustapenerako politika eta kreditu-erakunde ofizialek emandako erraztasunak baliatu zituen negozioan aurrera egiteko.

Gerraosteko autarkia garaiaren azken urteetan eta frankismoaren diktadurapean, politika ekonomiko protekzionistarekin bukatu zen Spainian eta ondorioz, merkatuen irekiera eta industria garapenari bidea erraztu zitzzion. Honek arrain kontserba sektorean, gerra aurreko esportazio eta kanpo eskaria berreskuratzea ekarri zuen, eta hazkuntzak bere isla izan zuen zabaldu ziren lantegi berriean.

Otxandioko lantegi honen elementu bereizgarria, geografikoa dela esan daiteke, izan ere, Otxandio kostaldean 50 kilometrora dagoen herria da. Hala ere, herriak kostaldearekin duen harremanaren aurrekari modura, ardoaren eta arrainaren ibilbidea aipatu daiteke. XIII-XVIII. mendeen artean kostaldetik barnealdera gehienbat bi produktu hauek merkaturatzeko bidea izan zen.



Arrain kontserba fabrika bat Pasaian. Paco Marín. 1957. Kutxateka.

Autorizar a "Conservas Faravilla, S.A." domiciliada en Bermeo, la instalación en esta villa, calle de Udalatxeta, nº 29, de una fábrica de conservas de pescado, quedando esta autorización sujeta a la que en su día debe ser concedida por la Delegación de Industria de Vizcaya.

1955/1963. Udal akta liburua. Otxandioko Udal Artxibategia.

Kostaldeko herrietatik hasi eta Urkiolako mendatetik igarota, Araban arraina merkaturatu eta itzulerako bi-dean Arabako Errioxako ardoa zamatzeko erabili zen.

XX. mendean harreman komertzial hauek eten egin baziren ere, komunikazio bide horiek modu naturalean funtzionatzen jarrai ahal izan zuten eta beraz, hipotesi gisa, hau izan daiteke Garavilla fabrika Otxandion ezar-tzearen arrazoietako bat.

Dakigunaren arabera, arrain kontserba fabrika, antxoa sasoi desberdin bitan egon zen martxan eta Otxandio-ko Udaletxe kaleko 29. zenbakian kokatu zen. Hala ere, azken urteetan herriak jasandako aldaketa urbanistikoek jatorrizko zenbaki hauek aldarazi dituzte eta gaur gaurkoz ez da fabrikaren arrastorik geratzen.

Antxoa sasoia gutxi gorabehera martxotik ekainera bi-tartekoia izaten da eta beraz ondoriozta daiteke, 1957



Andreen izenak ezkerretik hasita: Mari Angeles Bengoa Bengoa, Dolores Uribe Otegui, Regina Bengoa Etxezarraga, Rosalia Bengoa Etxezarraga. Txelu Angotia.

## Otxandioko Garavilla lantegian, 15 eta 20 urte arteko hogeita hamar neskatila inguruk egin zuten lan.

eta 1958ko martxotik ekainera bitartean funtzionatu zuela Garavilla S. A. fabrikak. Hala adierazten du udal akta liburuan jasotzen den 1956ko abenduaren 1eko ohiko saioko idazkiak; “*Autorizar a “Conervas Garavilla, S. A.” domiciliada en Bermeo, la instalación en esta villa, calle de Udaleche, nº29, de una fábrica de conservas de pescado...*”

Otxandioko Garavilla lantegian, 15 eta 20 urte arteko hogeita hamar neskatila inguruk egin zuten lan, izan ere, kontserbagintzarena beti izan da lan-sektore feminizatua. Baserrietako neskatoak ziren ia guztiak eta irabazten zuten diruarekin etxeko ekonomian laguntzen zuten. Baserriak ez zuen bizitzeko beste ematen eta aurreko garaietan bezala, biziraupenak lanaldi bikoitza eskatzen zuen, eta lan indarraren salmentak baserriko ekonomia urria osatzen zuen. Kontserba industria sektoreak garai harten zeukan eskariari erantzun eta ahalik eta etekin handiena eskuratu ahal izateko, emakume langileen lan-indar debaluatua beharrezkoa zitzaien.

Bertan lan egin zuten emakumeen testigantzei esker, lantegiko lan prozedura eta baldintzak ezagutu ahal izan ditugu; gatza eta antxoak freskoak Bermeotik Otxandiora

garraiatzen zituzten lehenik eta hainbat astez gatzetan jartzen zituzten gero. Prozesuaren hurrengo pausua antxoak ilaran jarritako mahaietara lekualdatzea zen. Bertan, hamarnaka neskato eta emakumek eskuz antxoak zabaldu, barruko tripak kendu, garbitu eta xerratu egiten zituzten. Azken fasean, antxoak latetan sartzen ziren. Orokorrean, lan nekagarria izaten zen, esfortzu fisiko handikoa eta errepijakorra. Neskatila hauek zortzi orduko lanaldiak betetzen zituzten, goizeko 8:00etan sartu eta arratsaldeko 16:00ak arte. Garai hartarako, soldata nahiko altua jasotzen zuten, 250 pezeta hilean, hala ere, pentsa daiteke, lan mota ezberdinak egiteagatik soldata ezberdinak jasoko zituztela. Horretaz gain, neskatilek ez zuten lan egiteko arropa aproposik izaten eta egunero “gibeletaraino olioz eta urez bustita” amaitzen zutela gogoratzen dute.

Otxandioko Garavilla S. A. lantegiaren historia xumea eta informazio aldetik osatugabea den arren, testigantzei esker, herriko historiarenean ahanzтурan geratu den pasarte honen gorputza osatzea lortu da. Zentzu horretan, ikerketa lan honek memoria ariketa bat egin eta fabrika harten lanean aritu zen emakume langile taldearen aitortza txiki bat izateko asmoa du.



### Ikerlari Gazteen Beka 2023

**Xixili Bengoetxea Llonak**, Gerediaga Elkarteak Durangoko Amankomunazgoaren babesarekin antolatzen duen Durangaldeko Ikerlari Gazteen Sariketa irabazi du 2023an, 19-35 urte artekoen kategorian. Gazteagoen kategorian, 18 urtetik behera, Jokin Camarero Garairen lanak irabazi du saria “Durangaldeko mitología” lanarekin.

LABURREAN

AITZIBER GONZÁLEZ GARCÍA  
ONDARE BABESA S.L.

# LOS POZOS DE LINO EN ELORRIO

Hay elementos que, a pesar de la importancia que tuvieron en los paisajes y en las comunidades del pasado, han ido desapareciendo de la memoria colectiva.

La industria del lino ha sido fundamental a lo largo de los siglos, no solo en nuestro territorio. Se trata de una industria, además, cuyo ciclo productivo era llevado a cabo en su práctica totalidad por mujeres y en el ámbito doméstico. En el caso de Elorrio, según las fuentes etnográficas, dejó de cultivarse y producirse en la década de los años 30 del pasado siglo, sin embargo, aún pueden localizarse vestigios de su utilización. Precisamente por esto, el Ayuntamiento de Elorrio promovió una investigación sobre los pozos de lino, que abordase su estudio desde las fuentes bibliográficas, documentales y topónimicas, desde la historia y memoria oral, y desde su materialidad.

El tratamiento del lino, especialmente el empozado, fue habitual fuente de conflictos por cuestiones de salubridad, por lo que su presencia tanto en pleitos como en ordenanzas es muy frecuente. Llama la atención, por lo tanto, la escasa presencia de referencias localizadas en la investigación documental. Estos aparecen como referentes del paisaje en amojonamientos del siglo XVI, en el entorno de Pulla. Su ausencia en las "Ordenanzas para el



📍 Localización de algunos pozos de lino en Elorrio.

buen Gobierno de la Villa de Elorrio", del año 1568, explica que, cuando en 1839, Julián de Asúa demandó a su vecino Sebastián de Miota por la construcción de pozos no pudiera aludir a las ordenanzas, teniendo que exponer cuáles eran los perjuicios que esta actividad les ocasionaba a él, su familia y ganados, además de a la enajenación de su derecho inmemorial al aprovechamiento del agua.



 Dos de los pozos de lino documentados en el barrio Zenita. Txelu Angoitia.


**Se localizaron gracias a la colaboración de uno de los vecinos, Jose Garaizabal, que conocía y recordaba la existencia de pozos de lino utilizados por su familia.**

La búsqueda topográfica no ha ofrecido topónimos que contengan una referencia explícita al lino, ni en relación con cultivos ni con espacios para el empozado. No parece que en Elorrio se utilice el habitual *liñaputzu*, en su lugar encontramos con gran frecuencia topónimos con el prefijo osin- (Osineta, Osinondo y Osinburu), así como el sufijo -putzu. A pesar de que, en la mayoría de los casos no se ha podido constatar su función, contamos con testimonios orales que confirman que en el término Osinondo en el barrio Iguria sí existían pozos de lino. Gracias a las fuentes documentales y orales, se han podido identificar espacios en los que se llevaba a cabo esta actividad, algunos relacionados con caseríos como el de Landa, Zenitaolea y Arestikoa, y otros en los términos Urkizuelai o Zangeta.

Gracias a la colaboración de uno de los vecinos, Jose Garaizabal, que conocía y recordaba la existencia de pozos de lino utilizados por su familia, se localizaron un total de 5 estructuras y dos que podrían haber sido utilizados para con este fin. Su estudio nos ha permitido documentar distintas tipologías de pozo con un alto grado de detalle. Encontramos cuatro pozos realizados mediante cortes en el sustrato natural que forman una

cavidad circular u ovalada, con diámetros entre 6 y 2 metros. Además, dos de ellos conservan la totalidad de las paredes y, además, los canales de evacuación del agua. Otra de las estructuras está formada por un corte en el terreno que genera una superficie plana sobre una pendiente por la que transcurre un curso de agua, creando así una superficie encharcada adecuada para la curación del lino. Se tiene constancia de la utilización de estas estructuras para el empozado del lino, pero, además, se localizaron dos estructuras que podrían haber cumplido esta función. Se trata de dos estructuras situadas en el margen del río Zenita, formadas por una alineación de piedras que permitiría proteger el lino de la corriente.

Todas estas estructuras han sido localizadas en el barrio Zenita, y encontramos varios elementos comunes o frecuentes. Por un lado, la proximidad a cursos de agua de mayor o menor entidad. Por otro lado, algunas de estas estructuras se encuentran muy próximas entre ellas, formando un conjunto de pozos. Además, dos de ellas presentan árboles delimitando el perímetro, que podrían actuar como delimitadores del espacio y nos permiten intuir un uso prolongado a lo largo del tiempo.



Documento que recoge los autos entre Julián de Asua y Sebastián de Miota por la construcción y utilización de pozos de lino en 1839.  
Archivo Municipal de Elorrio.

LABURREAN

IZASKUN ELLAKURIAGA

3

# ZALDIBARREKO PSIKIATRIKOA 100 URTEKO OSPITALE AITZINDARIA

**1** 923ko uztailaren 28an zabaldu zituen ateak Zaldibarreko ospitale psikiatrikoak. Emakumeak izan ziren lehenengo pazienteak. Izen ere, ordura arte, Bermeon baino ez zegoen buruko arazoak zituzten gai-xoak artatzeko zentroa. Ospitalizatza behar zutenen kopuruak gora egin zuenez, emakumeentzat zentroa Zaldibarren zabaltzea erabaki zuten.

Juan Antonio Toricesek, Zaldibarreko Ospitaleko zuzendari klinikoa mendeurrenako ospakizunetarako ospitalearen historiaren eta mugarririk nagusien kontakizuna egin zuen ekainean. Bere kronikan jaso zuenez, Bizkaiko Foru Aldundiak Zaldibarreko bainuetxea zeukan begiz jota. Garai hartan Manuel María de Cortazar zen jabea. Bainuetxea 700.000 pezetaren truke erosi zuten. Diego de Basterra arkitektoa zuzendari zela egin ziren egokitzapen lanak. Bainuetxeko 2 eraikin eraberriitu ziren: Eraikin nagusia, 250 emakumerentzat, eta lehenago hotel erresidentziala izandakoa, beste 30 gaixorentzat prestatu zen.



Severo Aranzamendi eta Mateo Sampedro medikuak  
1955eko otsailaren 15a.

Domingo, 20 de marzo de 1929

LA GACETA DEL NORTE

Página 1.—Agrupado NS. Tel. 81.000.

## REPORTAJES PROVINCIALES

# UNA VISITA AL MANICOMIO DE ZALDIVAR

Convendría preocuparse del alarmante contingente de locas que da Bilbao.-Curiosos diálogos con las enfermas

### Carito Mac-Mahón, "alma del Manicomio"



LA CAPILLA Y LA CASA DE LAS MUJERAS.

#### De Bilbao a Manicomio.

Burguera, enfermera para la provincia, explica con suavidad que es más difícil tener paciencia para dos tipos de enfermos que para típicos mentales. Una claudia que viene de Bilbao dice que cuando nació su hermano, su madre se quedó loca, y que tuvo que ser internada.

Eligió de las numerosas alcohólicas, tanto por la sencillez con que está tratando como por las ventajas y comodidades que se le ofrecen en el centro, donde 27 locas viven. Pero eso, porque también las enfermas convierten en locas a los enfermeros. La enfermera Mac-Mahón, viuda de bilbaíno, dice que un loco querido hace una visita para poder dar a las enfermas incertidumbre y dolor permanentes.

—¿Usted ha leído en revista la materialidad de los enfermos? —le pregunta una enfermera. Ya viene de un país donde no existen ni las locas ni las enfermedades mentales, y de todos los países vecinos que visitó a mucha gente.

—¿Porque las agencias de viajes no tienen información?

—No tienen razón. Yo pagué lo que

quería en privado, en iluminación y en medicinas, y venían a verme los enfermos... ¡yo no era! Ya dice si refiero que,

yo fui yo la prima que venía de Bilbao, porque cosa que escriben sobre las alcohólicas no es cierta. Yo sola he visto a tres alcohólicas, que dan mucho de problema.

—¿Porque las alcohólicas son las más peligrosas?

—Otro tanto como las enfermas normales. Tengo que decir que tenemos alcohólicas normales, y tienen pena como las normales. No tienen la simpatía que los otros tienen.

—Usted es tan buena... tan médica.

**Gustavo S. Bordolao**  
MED. Y ENFERM.

Alcohólicas del doctor y del administrador, enfermeras a los jardines que están en las afueras de la casa, en la que se vive mejor que en la propia casa. También se vive allí en un orden el que es digno de admiración.

—¿Por qué las enfermeras tienen que seras tan severas con las locas?

—Un pequeño recordado.

Administrador del doctor y del administrador, enfermeras a los jardines que están en las afueras de la casa, en la que se vive mejor que en la propia casa. También se vive allí en un orden el que es digno de admiración.



ZALDIVAR. El administrador, el médico, el gerente de la Administración, los enfermos y las enfermeras. ARMANDO LA MADRID SUPERIOR con los más jóvenes y los más ancianos de los locos.

enfijado que no se viven luchas, riñas, discusiones, amarguras o resentimientos ni miedos a la muerte del enfermo. De este primer visor se deduce que no hay más que algo de actividad respiratoria, y con ello uno sostiene a la otra. ¡Quédoles punto!

—Mire usted que decir que estoy loca. —Cada loco con su tema.

Yo entiendo de errores en el Municipio, pero, doctor, al no ser yo constante a casa. Dilema. Una de las locas, que hoy

EL RESFRIO ES CONTAGIOSO

Ocurrieron una bromista que, risueña, se acercó a la enfermera.

—¿Tú que cosa el chisme? —respondió la enfermera.

—Yo digo que en el centro que no se paga la luz, y que el agua no viene.

—También se dice que el médico, que es el primer alcohólico.

—Yo digo que el médico que no se

sabe lo que hace.

Y más verdad de lo que él dice.

—¡Cómo se pasa el día a casa y de casa a casa!

—Sí, digo yo, sentíente a su lado.

—Eres un poquitín de un poquito.

—¡Quédate conmigo, que te

vuelvo a la memoria!

A la enfermera, enfermera, enfermera.

—¡Quédate conmigo, que te

vuelvo a la memoria!

**Academia Minera**  
Fundada en 1914  
CARRERA DE COMERCIO





Juan Antonio Torices medikua mendeurrenra ospatzeko egindako argazki erakusketan.

Ohee hazkundea ospitalean oso handia izan zen hasieratik. Adibidez, 1923an 28 paziente ziren, 1924an 105, eta 1926an 249. Hiru urtetan ohe guztiak bete ziren. 1943an, 300 paziente baino gehiago ziren eta instalazioak handitu egin behar izan zitzuten. 60ko hamarkadaren erdialdean ere, paziente guztientzat lekurik ez eta ospitale aurreko eta osteko tratamendurako konsultategi psikiatriko bat zabaldu zuten.

Ospitalea eraldatuz joan da bere 100 urteetan zehar. Ospitalea asistentzia psikiatrikoaren bilakaerara egokitzen joan da, eta horrek aldaketak ekarri ditu metodo terapeutikoetan, errehabilitazioan eta pazienteen errekuperazioan.

1971n, arreta komunitarioaren eskema baten barruan, Zaldibarreko ospitaleak pazienteen banaketa homogeneoagoa aktibatu zuen. Gaixoen azterketa unitateetan, okupazio-terapiak erabilita, familiekiko kontaktua

aktibatuz edota alta emanda egiten zen. Era horretan, hurrengo urteetan 106 pazienteri alta eman zitzaien.

80ko hamarkadan, Euskal Autonomia Erkidegoko Asistentzia Psikiatrikorako eta Osasun Mentalerako Plannaren zutabe bihurtu zen, eta Euskadiko gaixotasun mentalaren arretaren erreformaren oinarria izan zen.

Hasieratik emakumeen ospitalea izan da Zaldibarreko ospitalea, baina beharrizanetara egokitzen jakin du eta, 1990eko urriaren 1ean, unitate misto bihurtu zen eta gizonezko pazienteak ere Zaldibarren artatzen hasi ziren.

Gaur egun, Zaldibarreko ospitalea erabat birmoldatuta dago. 102 ohe ditu, hiru unitate operatibotan banatuta, Bilboko eta Barrrualdeko Eskualdeko pazienteen Egoitzarako. Pazienteen batez besteko egonaldia 60 eta 110 egunekoa izaten da.

LABURREAN

IZASKUN ELLAKURIAGA



# DURANGALDEKO HISTORIAREN GORDAILUA ETA, ORAIN, ERASKUSLEIHOA DOKUMENTATEGIA


**G**erediaga Elkartea sortu zenetik, Durangaldeari buruzko ondarean, historian, kulturan eta bizimoduian sakontzeko balio zuten materialak biltzen hasi ziren elkarteko bazkideak. Nabarmenago, dena dela, 80ko hamarkadan izan zen.

Elkartea berak egindako jardun oparotik pilatutako dokumentuak, argazkiak, txostenak eta kartelak artxibatzeari ekin zitzzion hasieratik. Baino elkartetik kanpo, Durangaldearen erreferentziaren bat zuten liburu, disko, argazki, eskuizkribuak eta bestelako edozein material ere batu izan da.

Ez da beti nahi izango genukeen bezain modu ordenatuau batu eta gorde. Gure moduko elkarrekin ezin-

tasunen eta ajeen ondorioz, denbora eta bitartekoak faltan, gordailu eta biltegi zabala eta oparoa izan da gurea. Tarteka, saiakerak egin ditugu gordetakoa erakusteko. Pausu txikiak ziren beti.

Aurten, Gerediaga Elkartearen webguneari itxura berria eman diogu. Elkartetik kudeatzen ditugun egitasmo ezberdin berri izango du bisitariak. Dokumentategiarekin lotuta, funtzio nabarmena gehitu diogu webguneari. Orain arte gordailutzat izan dugun artxibo zabala erauskusleho bihurtzeko pausu garrantzitsua eman dugulaiko. Daukagun materiala egungo baliabide digitalekin sailkatu eta jendearen esku erabilgarri jartzeko aukera ematen digu tresna berriak.



Argazkien digitalizazio prozesua.

**Amaigabeko lana dago Gerediaga Elkartearen Dokumentategian.**  
**Gordailutik erakusleihora materiala prestatzen txiri-txiri egiteko lana da. Horregaitik,**  
**[www.gerediaga.eus](http://www.gerediaga.eus) webguneko Dokumentategi atalean beti izango da zerbait berria.**



Urteetan egindako lana ez da alferrik izan, eta 1700 liburu eta liburuxka daude erabilgarri, Durangaldeko erreferentziaren bat daukatenak. German Zorraquin argazkilariaren funtsari dagozkion 800 argazki ere bistara jarri ditugu. Durangaldeko lekuak erakutsiz garai ezberdinak 520 postal ere eskegi ditugu. Eta 2002an, Gerediaga Elkartea egin zuen Durangaldeko baserrien inventarioan egon ziren 1500 baserriren erregistroak ere kontsultatu daitezke.

Oraintsu, gainera, Durangaldeko historia hobeto ezagutzen lagunduko diguten bi funts garrantzitsu eskuratu ditugu. Bien kasuan, familien eskuzabaltasuna eskertzekoa da. Gerediaga Elkarteari material ezberdina sailkatu, artibatu eta erabiltzeko eskumena doan emandigute. Durangoko Jose Ignacio Ansorenaren argazki bilduma eta Elorrioko Alejandro Landabururenaren izan dira uda aurretik jasotakoak artean nabarmenenak.

## Ansorena

Sabino Ansorena 1902an jaio zen, eta laster zaletu zen argazkigintzara. Bere lehen klixeak 1922 edo 1923koak izan zitezkeela uste da.

Laborategia Barrenkaleko bere etxeko ganbaran instalatu zuen. Argazkietarako gaietan kirolak, ekitaldi erlijio-

soak, Durangoko bizitza soziala eta motibo etnografikoak ere nabarmenak ziren. EAJko kidea, gerra zibilaren ondoren jazarpena eta kartzela jasan zituen, eta hortik aurrera bere argazkiak familiakoak baino ez ziren izan 1965ean hil zen arte.

José Ignaciok, bere semea, aitaren zaletasuna jaso zuen eta aitaren argazki artxiboari eutsi zion eta album propioa egin ere bai.

## Landaburu

Alejandro Landaburu "Labarixa" ezagutzen den Elorrioko lehen argazkilari profesionala izan zen. 1906ko abuztuaren 11n jaio zen eta bost neba-arrebetan zaharrena zen. Argazkigintzan noiz hasi zen ziurtasunez jakiterik ez dago, baina hogeiko hamarkadaren bukaeran izan zitekeela erakusten dute hainbat gertaerek.

Elorrioko bainuetxean aristokrata-familien txofer izan zen. Gerra zibila hasi zenen, frontean izan zen sukaldari, baina argazki-kamera eraman zuen berekin.

Ez zuen kalean argazki-dendarik jarri. Bezeroak etxera joaten zitzaitzion, General Mola kaleko (gaur egun Bustantz kalea) 2. zenbakaren solairura.



⌚ Sabino Ansorena bere lagun batekin.



⌚ Alejandro Landaburu Elorrión.

LABURREAN

AITOR ARRIZABALAGA, JON ARZUBIA  
 ETA ANE SOLAGAISTUA  
 GABAKO ELKARTEA



# DURANGALDEKO SAGUZARREN BEHIN-BEHINEKO INVENTARIOA

**S**aguzarrak intsektujale amorratuak dira. Gau bakanrean ehunka intsektu jan ditzakete, horien artean gure landaketa askoren izurri diren intsektuak ere bai. Horrez gain, bizimodu anitzak dituzte (kabernikolak, arborikolak, fisurikolak) eta, ondorioz, beraien ezaugarrbiologiko asko bereizgarriak dira ugaztunen artean ere (hegan egiteko gaitasuna, lozorroan sartzeko, bizitzaluzera...). Horregatik guztiagatik, garrantzia ekologikoa eta biologiko handiko taldea da.

Horri guztiorri gehitu behar zaio legeak saguzar espezie guztiak babesten dituela. Europar Batasunak 1992ko 92/43/EEC zuzentzearau orokorrekin hasi eta estatu kideek eta Erkidegoek zehaztutakoaren arabera, Euskal Autono-

mia Erkidegoan aurki daitezkeen 27 saguzar espezieak legearen babespean daude (AGINDUA, 2013ko ekainaren 18ko). Denak babestuta egon arren, espezie guztiak ez dute kontserbazio-egoera berdina. Gutxi batzuk arriskutik kanpo dauden arren, denak dira interes berezikoa. Gainera, horietako asko nolabaiteko mehatxu-kategoriaren batean sailkatuta daude edota ez dago beraien egoera ebaluatzeko nahikoa daturik. Izan ere, beraien tamaina txikiak, izaera gautarrak, eta hegalarri eta isila izateak ez du errazten beraien banaketa eta ugaritasuna ezagutzea.

Horrez gain, espezie hauen izaera taldekoia zaurgarri egiten ditu habitatetan egon daitekeen edozein eraldaketekiko, bat-batean populazio osoak arriskuan jartze-

**GABAKO elkarreak bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, Durangaldeko saguzar espezieen inventarioa egin eta interes bereziko eremuak identifikatzea. Eta, bestetik, animalia hauen inguruko dibulgazio-lana egitea.**

raino. Gainera, gizartean ez dira oso ezagunak ezta baliotsiak ere. Arrazoi horiek guztiak direla-eta, GABAKO elkarrearen xedea Durangaldeko saguarren ezagutza handitu eta zabaltzea da.

### Zelan aztertu saguzarrak?

Saguzarrak identifikatzeko beren ekokokapenen ezaugarriean oinarritu gara. Ekokokapena saguarrak espazioan nabigatzeko erabiltzen duten sonar biologikoa da. Oinarrian, maiztasun altuko soinuak (ultrasoinuak) igorri eta oihartzuna erabiltzen dute espazioan mugitu eta ehizatzeko. Ultrasoinu horien ezaugarriak azertuta espezieak edota espezie-taldeak identifikatu daitezke, saguzarrak harrapatzeko orduan eragozpenik eragin barik. Horretarako, bi ultrasoinu-grabagailu erabili dira: AudioMotha eta u256 Petterssona. Lehenengoarekin, leku zehatz bateko gau osoko ultrasoinuak grabatu dira. Bigarrenarekin, aldiz, zehaztutako eremuan (koba edota meatze sarrera ba-

ten inguruan), ilundu eta 1-2 orduko denbora-tartean, atzemandako saguzarren ultrasoinuak jaso dira. Soinu hauek guztiak Kaleidoscope programarekin aztertu dira eta ultrasoinuen identifikaziorako gidaliburuak (Russ, 2021) erabiliz saguzarrak identifikatu dira.

### Emaitzak

Jarraian aurkezten diren emaitzak 2020 eta 2021 urteetako udetan hartutako datuetatik atera dira. Laginak Mañariko eta Izurtzako udalerrietan jaso dira. 6 koba/meatze zaharren inguruan, eraikin batean eta bestelako 3 eremutan egin dira soinu-grabaketak. Espezie batzuen ultrasoinu-ereduak gainezarri egiten direnez, espezie horien identifikazio zehatzia ezinezkoa da. Espezie horiek talde foniko bezala aurkeztu dira (esaterako, baratz-saguzarra eta gau-saguzarra talde fonikoa). Horrela, nahiz eta zehaztasuna galdu, identifikazio okerrak saihesten dira. Identifikatutako saguzar espezieak eta beraien kontserbazio-egoera taulan aurkezten dira.



Schreiber saguzarra.

Izen arrunta	Izen zientifikoa	Kontserbazio-egoera
Ferra-saguzar handia	<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	Kaltebera
Ferra-saguzar txikia	<i>Rhinolophus hipposideros</i>	Interes berezikoa
Schreibers saguzarra	<i>Miniopterus schreibersii</i>	Kaltebera
Schreibers saguzarra eta Pipistrelo mediterranearra talde fonikoa	<i>Miniopterus schreibersii</i> edo <i>Pipistrellus pygmaeus</i>	-
Geoffroi-saguzarra	<i>Myotis emarginatus</i>	Kaltebera
Pipistrelo txikia	<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	Interes berezikoa
Kuhl eta Nathusius pipistreloen talde fonikoa	<i>Pipistrellus kuhlii/nathusii</i>	Interes berezikoa
Savi saguzarra	<i>Hypsugo savii</i>	Interes berezikoa
Gau-saguzarra eta Baratze-saguzarren talde fonikoa	<i>Nyctalus</i> sp. edo <i>Eptesicus serotinus</i>	-
Baso-saguzarra		Galtzeko arriskuan
Belarrihandien talde fonikoa	<i>Plecotus</i> sp.	Interes berezikoa
Myotis generoko saguzarrak	Myotis talde fonikoa (> 8 espezie)	Ezin zehaztu

 TAULA. 2020-2021 urteetako udako laginketetan identifikatutako saguzar espezieak.

## Ondorioak


Egindako laginketa-esfortzua handia ez izan arren, Euskal Herrian ezagutzen diren 27 saguzar espezietatik 11 identifikatu dira Durangaldean. Emaitzak behin-behinekoak dira. Izen ere, ez dira grabaketa-ordu guztiak aztertu eta baliteke espezie gehiago agertzea.

Identifikatutako saguzar guztiak Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa sailkatzen dira. Horien artean aipatzekoak dira galtzeko arriskuan dagoen baso-saguzarra edota egoera kalteberan dauden ferra-saguzar handia, schreibers saguzarra, geoffroi saguzarra eta gau-saguzarrak. Espezie hauen presentziak Mañariko zenbait eremuren kontserbazio-egoera egokia izan daitekeela iradoki arren, beraien kontserbaziorako premia ere azpimarratzen du.

Azkenik, savi saguzarrak aipamen berezia behar du, ustez espezie menditar mediterranearragoa den hau ez baita orain arte EAEko isurialde atlantiarrean identifikatu. Espezie honen inguruko datu gehiago behar dira bere hedapenaren izaera ziurtasunez ezagutzeko (esaterako: pentsatu baino arruntagoa da ala identifikazio isolatuak dira?).

Lan hau egiteko ezinbestekoia izan da askoren laguntza, besteak beste, Libe Solagaistua, Gema Espeleologia Elkartea, Mañariko Udala eta UPV/EHUko Jokabide-Ekologia eta Eboluzioa Saguzaharretan ikerketa taldea.

Etorkizuneko behaketen bidez zerrenda osatzen jarraitzea eta interes berezikor eremuak identifikatzea da Gabaiko Elkarrean izango duen eginkizuna.



© Aitor Arrizabalago GABAKO Elkartekoa, lanean.



© Belarrihandi grisa "Plecotus austriacus".

DURANGALDEAN  
EUSKARAZ  
BIZI.





Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango





# DURANGALDEAN

# BADIRA

 Ainhoa Zabarte Narbaiza |  Txelu Angoitia

A inhoa, Irati, Maider, Iratxe, Uribarri, Izaro, Ane, Irune, Leire, Usue, Alaitz, Eider, Maitane... emakume zerrenda luzea. Zinema, telesailak, kamera aurrean zein atzean, antzerkia, oholtza, ahotsa eta gorputza, dantza, eskuen balantza, marraztu, irudiak, arropak, liburuen azalak eta mamiak, poesia, bertsoa, fikzioa, erretratua, abstraktua. Durangaldeko emakume gazte artistak dira. Batzuk ageriago, ezagunago, izenago. Beste batzuk, aldiz, ezkutuago, gordeago. Egon badaude, eta hemen horren lagin txiki bat jasotzen da.

## Artistak eta etiketak

*“Jatorriz arte hitzak trebetasuna adierazten du, edo-zein modutakoa. Trebetasuna irudimenarekin lotzen denean adierazpide estetikoa sortzeko, orduan arteak gainditu egiten du jatorrizko esanahia: objektu, inguru edo esperientzia estetikoa sortzea da orduan artea.”* Horrela definitzen du artea Harluxet hitzegi entziklopedikoak.


Arteak baina, eta batez ere artista hitzak, azkura eragiten du erreportajerako batutako emakumeengan. Artista hitzak botere, estatus edo pisu handia duelako. Hala azaltzen du **Ainhoa Olaso Sopelana** (Durango, 1996) zinemagileak: “artista subjektua autoritate botere batekin lotuta doan unetik sortzen dira konplikazioak. *Paristik natorren artista bat naiz ni* kantatzent genuen umetan, ideia hori da jasotzen duguna”. Olaso ez dator Paristik, eta ez da zinema eskola batean sartu. “Donostian zinema eskola batera sartuko nintzateke euskaraz ikasteko, baina ezin

da, aukerak oso mugatuak dira”. Kafearen bueltan antzeko hausnarketa egiten du **Leire Vargas Nieto** (Durango, 2002) idazleak: “Esango nuke artea goi mailako zerbaitekin lotzen dela eta hori bera ere eztabaidagai da.” Artearen definizioa sarritan klasista dela dio, bakoitzak “goi mailako” etiketa hori jarzreak edo ez baldintzatzen du larrik. Sortzaile izenaz errazago identifikatzen du bere burua, “aditz ukigarrri edo ikusgarri batekin eta hitzaren etimologiagatik baino ez bada ere”.

Artista deituraz gain, bakoitzak badu bere diziplina, bere kategoria, bere etiketa. Aktore, dantzari, argazkilari, zinemagile, abeslari, zuzendari, jostun, bertsolari, ilustratzaile, komikigile eta beste.

Ez du bere burua aktore bezala definitzen **Ainhoa Azpitarte Elgueak** (Zaldibar, 2004), *Irabazi Arte* ETB1eko telesaileko aktoreak. Egunen batean une horretara heltzea nahiko luke. “Noiz heltzen da momentua? Noiz esan dezaket aktorea naizela?” galde-

Ainhoa Olaso Sopelana.



tzen dio bere buruari. Azpitarteren ustez aktore izatearen etiketa hori gizartearren onespenarekin dator, nahiz eta berak horren aurkako iritzia izan.

**Uribarri Atxotegi Onandiak** (Durango, 1996) dio bere burua artistatzat duela, “bandera” egiteko asmoz. Bainaz dantzari abizenak ere barne gatazkak sorrarazi dizkio urte luzez. “Dantza oso gazte hasi nuen eta barneratutako lehen kontzeptua, dantza klasikotik etorrita, profesionala eta forma bakarrekoa da. Gorputz konkretu bat, mugimendu bakar-

bat eta konpainia handi baten izenpean egiten den bizimodu bat”. Ideia hori irauli nahi du Atxotegik.

## Kameren atzean

Argazki kamera soinean mugitzen da **Iratxe Etxeandia Etxebarria** (Zornotza, 1994). Pasioz bizi du ofizio bihurtu nahi duen afizioa. Mundua ikusteko modu bat bezala definitzen du bere fotografiarako sena. Ama du gogoan, ama kamera bat lotuta. Pentsakor jarrita dio hori izan daitekeela bere argazki se-



naren jatorria, baita oroitzapenak ehizatzeko ere. Erretratuak egitea du gustuko: "argazkilaritza bidez aurrean dudana nola ikusten dudan, bere edertasuna eta agian berak atzematen ez dituen gauza positiboak jasotzea maite dut". Bere buruarekin egin zuen saiakera konfinamendu garaian. "Oso ariketa zaila egin zitzaidan nire burua ilun hautematen nuean kamera aurrean jartzea". Momentu horretan erabaki zuen "jendea zein zoragarria den" erakutsi nahi zuela. Erretratuak, kontzertuak, Huntza taldearekin bira, ezkontzak eta beste atzematen ditu

klik batetan. Txakurrak eta beren jabeak zein objektuak harrapatzea gustatuko litzaiok. Lasarten Kool estudioa duen Karmelerekin egin berri du trukea. Produktuei argazkiak, produktuen truke. "Badakit beti ezin dela horrela bizi, baina desioko nuke lanak horrela egitea".

Orrien artean iltzatutakoia iruditan imajinatzen aritzen da Ainhoa Olaso. Sekuentzia baten koreografia diseinatzen eta istorioen elkarritzetak asmatzen. Eraman ditu idatzitakoak pantailara durangular

gazteak. Inork ez luke du izenburu bere lehen film laburra. Gradu bukaerako lanarekin bat etorri zena. Baino 2020an *Hemen bizi da maitasuna* film laburra ontzen hasi zen eta sariekin, diru laguntzak, bekak eta Kimuak katalogoa sartzea ere lortu du. Ama-alaben tirabira une bat bizitzen da filmean, non alabak etxetik alde egitea erabakitzenten duen. Eztanda une bat. Pandemiak eskainitako denborari etekina aterata 2020an hasi zen letrez istorioa janzen eta bispahiru urteren ondoren egin du jauzi pantaila handira. Gaur egun beste sei hizkuntzatara itzulita dago.

Ez daki nondik datorkion zinemarako sena, “ez da hautatutakoa izan”. Bizitzan zehar hartutako era-bakietan ikasi du zer duen gustuko eta zer ez. Gi-doigintza masterra ikasten dabil orain eta 14 minutuko gidoia idatzia du, akaso luzatzeko asmoz. Hori gutxi ez eta Markel Onaindiarekin batera dokumental baten gidoia garatzen dabil Pilar Zubiaurreri buruz. Zubiaurretarren arreba bezala ezagutua izandako emakumea, eta itzalpean diziplina asko jorratu zituen pertsona.

## Eta aurrean

Kameraren aurrean gustura moldatzen da Ainhoa Azpitarte, ETB1eko gaztetxoentzako *Irabazi Arte* telebistailean. Lehen denboraldia 16 urte zituela grabatu zuen eta aittatu du filmaketan ez zirela kontziente egiten ari zirenaz, izan zezakeen oihartzunaz. “Ez genuen imajinatu ere egiten izan duen arrakasta.” Hirugarren denboraldia grabatuta, aurrekoak Disneyren plataforman daude ikusgai. Hala eta guztiz, bere aktore senaren bila jarraitzen du Azpitartek. Dantzertiko ikaslea da, Bilbon dagoen Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzaren Goi Mailako eskola.

Kanpoan aktore bezala ezaguna bada ere, lehenagotik abeslari modura ezagutzen dute herrian. Umetatik bizi izan du musika etxearen eta Bizkaia Irratia entzuten zeudela Haur Kantari Txapelketa

ze goela entzun eta izena eman zuen. Bi urtetan aurkeztu, eta batean Bizkaiko lehenengo, eta hurrengoan Euskal Herriko bigarren geratu zen. Ordutik gustuko duen musikarien bertsioak abesten ditu ukelelek lagunduta, eta bi abesti sortu ditu. Aktore profesionala izatea du amets, baina kantua eta futbola ditu bere konfort-gune eta ahal duen heinean kontzertuak ematen jarraitzea nahiko luke.

Kamera aurrean egin ditu lan batzuk baina oholtza gainean aritzen da erosoa **Iratzi Herreros Moreno** (Zaldibar, 1999). 13 urte zituela hasi zen antzerkia egiten eta arte dramatikoa ikasi du Barakaldon. 2022an Arriagan jardun zuen William Shakespeare-ren obraren moldaketa den *Lear* antzezlanarekin. “Lehenengoan shockean nengoen, atzeko butaketa-tik ez zitzaidan entzun ere egin, baina zoragarria izan zen. Hori bai, asko hobetu dezaket”. Pelikula bat egitea gustatuko litzaioke baina ez da bere helburu handiena. *Torre de Brujas*, berak idatzitako lana zuzendu eta antzeztu du. Orain, lan berri bat du esku artean, hazte prozesuan eta Bilboko Zirkuituan sartzea espero du.

## Gorputzak

Oholtzan, lurrean, aretoetan eta kalean higitzen dira Bagara kolektiboaren parte diren **Ane Gabi-londo Loizate** (Durango, 1995), **Maider Gonzalez Etxegibel** (Durango, 1995) eta **Uribarri Atxotegi Onandia** hirukotea. Gabilondok jazz moderno diziplinarekin eta klasikoarekin hasi zuen bere ibilbidea, 18 urte bete arte. Orduan Madrilera alde egin eta dantza garaikidea ezagutu ostean, disciplina hori ikasteko hautua egin zuen. Gonzalezek euskal dantzak ikasi zituen txikitán, ondoren Uribarri-rekin batera dantza klasikoa, eta 15-16 urte zituela kontserbatorio antzeko eskola batera joan zen Madrilera. Gonzalezek apurketa izan zuen balletarekin eta sei urte pasa zituen dantzan egin gabe. Atxotegi dantza klasikoan hasi zen umetatik eta

Irati Herreros Moreno.



Gasteizen bi urte kontserbatorioan pasa ondoren, Gabilondok bezala, haustura bizi izan zuen. “16-17 urte nituela eman nuen jauzia dantza garaikidera eta hau izan zen salbamendua, bestela dantza utzikoa nuen”.

Emakumeak eta gazteak dira. Gabilondo dantzariak gogoratzeten duen bezala, dantza egiteko modua, iruditegia, ideia matxista batek “zikinduta” dago. Dantza gorputza eta esparru feminizatua den heinean, “zer dago matxakatuago emakume baten

gorputza baino?”. Dioenez, gizartea oro har emakumea ikusten du lehenengo, eta ondoren dantza, nahi gabe bada ere, ezarrita dauden betaurreko matxistekin. “Honek eragina du gure burua gutxiesten eta dantzari moduan ez ikusten.”

Ane eta Uribarri elkartu ziren lehenbizi eta gerora batu zitzaien Maider. Bagara kolektiboa sortu zuten elkarrekin. “Herrigintza proiektuetatik gentozten, hau ere herrigintza da, baina salto handia eman dugu profesionalizazioaren bidean eta esparru per-

Iratxe Etxeandia Etxebarria.



tsonal zein profesionalean ahaldunten bat izan da” gogoratzen du Atxotegik.

Durangoko Azokaren irekierarako emanaldia, Ger- tu Festerako kale performance-a, *Interakzio* eta beste lan batzuk egin dituzte durangar dantzariekin. Egun, Berrizko Llum espazioan dantza klaseak ere ematen dituzte. “Gu beti kanpoan ibili gara ikas- ten, bakoitza bere kabuz, eta hau Durangaldean egitea apustu handi bat izan da; guk faltan bota du- gun dantza eta denontzako eskuragarri den dantza

espazioa zein eskaintza sortu dugu”, gogoratu du Gonzalezek.

Etorkizuna bizirik ikusten du hirukoteak. “Bagara, ize- na bera esanguratsua da, bagaudela, bagarela eraku- tsi nahi dugu” dio Uribarrik. Produkzio espazio bezala irudikatzen dute, edo lan ezberdinak aurrera erama- teko tokia. Hala ikusten du etorkizunean Maiderrek. “Dena delakoa, momentuan momentukoak, gara- tzen joango dena, gure gogo, nahi, behar eta bizi- tzekin transformatzen joango den organismo bat”.



## Hitzekin dantzan

Hitzekin egiten du dantza Leire Vargasek, bertsotan zein poesian. Antzerkian ere aritu da. Azaltzen du *Dena ametsa den irudipena* argitaratzearekin eta sariarekin lortu duela idazle onarpena, “zentzu konbentzionalean.” Bat-bateko bertsolaritza utzita badu ere, *Erre diziplina arteko emanaldia* da eta bertsoa ikuskizunaren tresna nagusia. “Militantziatik nahiko nuke nire burua bertsolari bezala kokatu

eta bertsolari izate horri zabalpena eman bat-batekotik harago”. Hala eta guztiz, kosta egiten zaio bere burua bertsolari bezala ikustea.

Umetan garrantzizko zerbaite esateko zuenean idaztera jotzen zuen. 13-14 urterekin hasi zen bere sentimenduak poesia bidez kanporatzen, “poesiari esleitzen zaison zentzu erromantikoan”. Urte luzetako lana izan da argitalpenarena. Ezezkoak jaso zituen. “Horrek lan batzuk kanpoan uztera eraman nin-

Leire Vargas Nieto.



duen. Beste batzuk zorrotzu eta berriak sartzera.” Literaturan dabilen jendearen babes handia jaso duela azpimarratzen du, eta horrek plazara irteteko orduan bertigoak uxatu dizkiola.

Diziplina bakoitzean emakumeen egoera ezberdina bada ere, orokorki gizartearren isla dira espazio hauek ere. Vargasek “kontuz ibili” beharra dagoela dio, emakumeen bidea zabaldu dela ematen badu ere mekanismo eta dinamika matxistak hor jarraitzen

dutela gogorazten du. “Ez da kasualitatea gizonei literaturari buruz hitz egiteko deitzea eta emakumeoi literatura eta emakumeari buruz berba egiteko”.

Poesian jarraitza nahi du, baina beste generoren batean ere sakontzea gustatuko litzai oke. “Horretarako denbora behar dut eta nire buruari gauzak egitea permititu, nahiz eta onak ez izan. Hor dut erronka, baina uste dut gozagarria izango dela”.

Irune Basagoiti Agirre.



Zaldibarren eta Mendaron bertso eskolak ematen ditu **Irune Basagoiti Agirrek** (Ermua, 2002). Hezkuntza arautuan ez zuen bertsolaritza ikasteko aukerarik eduki baina etxearen ama bertsozalea du eta umetatik bere eskuistik joan da saioak ikustera. Mallabiko lagunekin batera Berrizko bertso eskolan eman zuen izena eta talde hori desagertu bada ere, egun Durangon jarraitzen du. Etorkizuna bertsoari lotuta biziko duela dio. "Txapelketetan zer-bait gehiago ematea nahiko nuke, azkenean honek

baldintzatzen du gero plazetako kantua. Bain ahal den moduan, eskolak ematen ere pozik nago eta."

## Koloreekin jolasean

Marrazteaz, ilustrazioaz, sorkuntzaz bizi da **Usue Egia Fernandez de Retana** (Durango, 1992). Inoiz ez zukeen pentsatuko soldata irabazi ahalko zuela marrazkien bidez. Bi liburu argitaratu ditu Egiak. *Nik esaten dudalako, Ane Arribillaga Iriarterekin*

Usue Egia Fernandez de Retana.



elkarlanean eta bakarrik eginiko *Ura Leporaino*, lan “potentea.” Lehen lana zubi bezala ikusten du, asko ikasi zuen bidean, editorialekin nola lan egin eta liburu bat publikatzearen prozesua bere osotasunean nolakoa den. Konfinamendua bakarrik pasatu zuen ilustratziaileak, eta zerbaite kreatiboa egiteko erronka jarri zion bere buruari, eguneroko hausnarketak jasotzen zituen marrazkiak. Momentuko gorabehera emozionalak, fantasiarekin, musikarekin lotutako istorioak. “Egiten ari nintzenari zentzua bilatzen nion

eta editorearekin harremanetan jarri nintzen”. Hilabeteak aurrera, Durangoko SorLeku beka jaso zuen. Liburua errealtitate bihurtu zen eta bere marrazkiak “zintzoak” izaten jarraitu bazuten ere, beste era batera marrazten hasi zen. Marrazki izeneko espazioa zabaldu berri du Durangon. Marrazketa librea, esperimentazioa, jolas eta sormena oinarri duen tokia. Ilusio handiarekin dabil bertan eta marrazki, ilustrazio eta sormen munduan jarraitzea espero du etorkizunean.



Umetatik pintatu izan du Iratzi Bazeta Agirrek (Abaudiño, 1999). Unibertsitatean gai sozialekin lotura izan behar zuen proiektu bat egiteko eskatu zieten eta marrazkiz egitea otu zitzzion. “Hor berreskurtu nuen marrazteko zaletasuna. Eta hortik instagram kontu bat zabalduta, afizioa ez alboratzeko konpromisoa hartu nuen nire buruarekin”. Hala iritsi zitzzion espero gabeko eskari bat. “Lagunek esaten zidaten ordua iritsi zela, bazela garaia egiten nituen lanei beste irtenbide bat emateko”. Lehen lana saldu eta gero bere barruan aldaketa bat nabari du Baze-

tak, aukera bat. Eta hortik azokara saltzera joateko pausua eman zuen. Marrazki laminez gain, berak sortutako irudiak dituzten telazko poltsak ere saltzen ditu azoketan. Egun lasaiago dabil, lana eta afizioa uztartuz. “Orain nahi dudanean margotzen dut, gogoa eta beharra sentitzen dudanean”.

## Hari eta orratzak

Azoka ugaritan topatu daiteke jantzigintzan enfokatua dagoen Amalur proiektua. Blusak, alkandorak,

Ainhoa Gangoitia Mazorriaga.



prakak eta petoak josten ditu **Ainhoa Gangoitia Mazorriagak** (Abadiño, 1992).

Duela urtebetetegi inguru ireki zuen tailerra. Horrek aurrez aurreko lana errazten dio jostunari: "jendeak bertaratzeko aukera dauka, telak ikusi eta ukitu. Aukeratu eta neurriak hartzen dizkiet. Aurrez aurreko tratua gozagarria da." Azoketan ere saltzen du. Baino plaza nagusi bat sare sozialak dira, Instagrama. "Salmenta leku oso potentea da. Nik ez nuen pensatuko horrenbeste saldu zitekeenik. Nik erakus-

leho eta aukera bezala ikusten ditut, baina egia da dependentzia sortzen dutela eta jendeari gauza berriak eskaini behar dizkiozula, bestela nekatu egiten dira. Eta hori lanaren parte handi bat ere bada".

Dena eta denak ezin kabitu, zalantzarak ez dago. Durangaldean emakume gazte artistak BADIRA.

**Ainhoa Zabarte Narbaiza**

Kazetaria

# ERTIBIL BIZKAIA 2023



**BILBAO  
REKALDE ARETOA**  
Uztailak 14 - irailak 17  
14 julio - 17 septiembre

**GETXO  
PUNTA BEGOÑA**  
Urriak 16 - azaroak 5  
16 octubre - 5 noviembre

**SESTAO  
ERAKUSKETA ARETOA**  
Azaroak 6 - 19  
6 - 19 noviembre

**BALMASEDA  
HORCASITAS JAUREGIA**  
Azaroak 20 - abenduak 17  
20 noviembre - 17 diciembre

**BARAKALDO  
UDAL ERAKUSKETA  
ARETOA**  
Abenduak 18 - 2024ko urtarrilak 5  
18 diciembre - 5 enero de 2024

# ARGITALPENAK FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

## BIZKAIKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

### DENDA • PUNTO DE VENTA

Diputazio kalea 7, 48009 BILBAO

Tel: 944066968/944066969

Ordutegia • Horario: 08:30-14:00

(Asteleheneetik ostiraletarra • Lunes a viernes)

### KATALOGOA • CATÁLOGO

[www.bizkaia.eus/argitalpenak](http://www.bizkaia.eus/argitalpenak)

Katalogoaan 500 izenburu inguru  
kontsultatu daitezke, hainbat gairi buruzkoak

En el catálogo se pueden consultar alrededor  
de 500 títulos de temática variada.



 Ana Celia Ormaetxea |  Txelu Angoitia / Archivos

# Pinturas Musicales

## Las pinturas de la fachada del Ayuntamiento de Durango





## 1770 Se buscan “pintores Inteligentes”

Corría el año 1770 y los regidores de Durango estaban muy preocupados ante el estado ruinoso que presentaba la casa consistorial, como así lo atestigua el Acta de la reunión del 4 de abril de 1770: “*Propuso dicho señor Alcalde, que como era notorio, el edificio de dicha Casa Consistorial, por lo interior, y exterior, estaba manifestando ruina en varias partes, consuma indecencia, provenida de su antigüedad(...)* y que además se padecía mucha frialdad y desabrido en toda la enunciada casa(...)”. Pero la corporación, además de sentido práctico, demostró tener gusto artístico y amplitud de miras, ya que, unos párrafos mas adelante en la misma acta, deja claro su deseo de que se ejecute: “*una Hermosa y*

*permanente pintura en su fachada principal, esculpiendo en Tablas ó tarjetas proporcionadas, las Armas y Trofeos de esta citada villa, y demás Estantas y dibujos que pareciesen combenientes*”.

Era la moda de la arquitectura de la época, pintar mediante la técnica del trampantojo aquellos elementos arquitectónicos que por su carestía no se podían incluir en la construcción. Dicho y hecho, según se recoge en el Libro de Cuentas de 1771, se invitó a un conocido pintor de exteriores de la época, Ignacio de Zumarraga, vecino de Bilbao, a que viniera: “*para inspeccionar el modo en que se había de proceder a la pintura (...) por dentro y por fuera*”. “*Ocupación*” por la cual se le pagaron 34 reales. Pero quizás con este pintor no se llegaría a un acuerdo porque según cuenta el Acta de diciembre de 1770, a finales de ese año se habían lle-

vado a cabo todas las reparaciones, pero la fachada continuaba sin pintar: “*lo cual no se había podido Berificar por este año*” y se encargaba a Pedro de Asua, tesorero, “*para que por medio de inteligentes Pintores se ejecute su conclusión valiéndose de los caudales necesarios*”.

